



## MUSIKA

# 2020an (agian) entzun ez dituzun lau disko



**H30**  
HASIER OLEAGA,  
SORKUNDE IDIGORAS,  
JULEN IZARRA  
GAZTELUPEKO HOTSAK



**ILARGIAREN SEMEA 1619**  
XSAKARA  
AUTOEKOIZPENA



**SORM3N**  
JULEN BASTERRA  
GARMENDIA  
AUTOEKOIZPENA



**RED RIVER RIDE**  
MARTIN DE MARTE  
AUTOEKOIZPENA

## XALBA RAMIREZ

**G**ustatzen zait joandako urteari begiratua ematea, aukera ematen baitit ezagutzen ez nituen harribixiak ezagutzeko. Arrazoi batengatik edo bestearengatik urteko zerranda gutxitan (edo bakarrean ere ez) atera diren lau disko proposamen egingo dizkizuet.

**H30 (Gaztelupeko Hotsak, jazz).** Proiektuan Hasier Oleaga bateria-jotzailea, Sorkunde Idigoras piano-jotzailea eta Julen Izarra saxo-jotzailea ditugu. Izenak *Oleaga trio*a iradokitzen duen arren, hiru artistek sinatu dituzte kantak eta aniztasuna eman lanari. Lehen kantatik kontrasteak nabarmenduko nituzke, zati erritmikoetatik intentsitate eta lasaitasun uneetako aldaketa handietara. Musikari bakoitzak gehitutako ñabardurei esker kalitate zigilua lortu dute.

**Ilargiaren Semea 1619 (Autoekoizpena, trapa).** Xsakara bermeota-

rrak trap eta hip-hop erritmoz betetako lan pertsonal eta intimista eskaini du, erritmoek eta leloek hori iradoki ez arren. 16 urtetatik 19ra bizitako esperientziak kontatu nahi izan ditu, euskal nerabezeroaren problematiketara hurbilduz modu freskoan. Ekoizpenak ez du berebiziko dotoreziarik, baina aldi berean ez da hantustetsua eta ibilgailu gisa eramango gaitu norberak bere barrerak arakatzera. Aipatzekoa da kanta bakoitzeko kolaborazioek emandako kolorea.

**Sorm3n (Autoekoizpena, instrumental).** Julen Basterra Garmendia gitarra-jotzaile donostiar ezezagunak bere kabuz igo du Youtubera hamaika kantaz osatutako bilduma. Denak gitarra hutsez joak. Modu xumean grabatu ditu, etxean eskuragarri dauden materialekin. Angel Unzuren *13 solos* edo John Butle-

rren *Ocean* gogoratzen duten uneetatik Extremoduroren rock sinfoniko akustikoetara doa. Teknikoki izugarria da, eta emozionalki zer esanik ez: atmosfera ugari ukitzen du. Ez bilatu ezer, jarri diskoa osorik eta bidaiatu.

**Red River Ride (Autoekoizpena, dream pop).** Martin de Marte Zarauzko Marc de Marco dugu. Zarauztarrak lehenengo diskoaren azalean egin zion keinu kanadarrari, eta soinuaren eta ehunduratan nabari da. Baina influentzia izateak ez du esan nahi kopia egin duenik eta libreki nahastu ditu rock, jazz, indie eta psychodelia ukituak, kanta lasai zein mugituetan. Chill out freskoa, chorus gitarra dantzariak eta bateria lehor dotoreak, denak Martin Muruak berak lokalean grabatutakoak. *You Better Uler-tu* abestia da (eta bere bideoa) diskoko altxorra. ●